



ORMAIZTEGIKO
UDALA

**ORMAIZTEGIKO UDALEKO ADMINISTRAZI PLAZA BETETZEKO HAUTAKETA
PROZESUAREN EPAIMAHAIAREN 5. BILKURAREN AKTA**

Eguna: 2025eko otsailaren 6a.

Ordua: 10:00

Bilera-mota: Urrutikoa.

BERTARATUAK:

Lehendakaria: Martin Iparragirre Mujika jauna

Bokalak:

Miren Jasone Telleria Arrizabalaga andrea

Amaia Arotzena Altuna andrea

Gemma Sarasua Gaztelumendi andrea

Idazkaria: Miren Begoña Antxustegi Bengoetxea andrea

BERTARATU EZ DIRENAK:

Inor ez.

LEHEN PUNTUA: AURREKO AKTA ONARTZEA.

Idazkariak hitza hartu eta galdetu du ea epaimahaikide guztiek jaso duten emailez bidali zitzaien akta proposamena. Erantzuna baiezkoa izan da. Ondoren, aukera eman zaie oharrak edo zuzenketa eskariak aurkezteko baina ez da horrelakorik izan. Bozkatzeari ekin zaio eta ahobatez onartu da.

Bilkurari hasiera eman zaio, honako gai zerrenda honen arabera:

- Hirugarren ariketaren emaitzak adostea eta argitaratzea.
- Laugarren ariketa egiteko beharra bertan behera uztea.
- Oposizioaldia gainditu duten izangaien zerrenda.
- Erreguak eta galderak.

BIGARREN PUNTUA: IVAP-eko Hautaketa Zerbitzuak egindako eta baloratutako 3. ariketaren emaitzak.

Idazkariak jakinarazi du IVAP-eko Hautaketa Zerbitzuak igorri dituela ariketa psikoteknikoaren proba idatziaren eta elkarriketaren emaitzak.





Epaimahaikideek emaitzak aztertu dituzte eta, eztabaida amaiturik, bozketari ekin zaio, eta batzordekide guztien aldeko botoarekin, epaimahaia ahobatez zera

ERABAKI DU

LEHENA: Hirugarren ariketaren emaitzak argitaratzea.

3. ARIKETAREN EMAITZAK

Erregistroko sarrera zenbakia	Nortasun Agiria	GAINDITU DU	EMAITZA (Gehienez, 20 puntu)
385	***0287**	BAI	10,40
399	***3328**	BAI	13,95
407	***5555**	BAI	14,38

BIGARRENA: Interesatuei hiru laneguneko epea ematea erreklamazioak aurkezteko (otsailaren 10etik 12ra, biak barne).

HIRUGARREN PUNTUA: LAUGARREN ARIKETA EGITEKO BEHARRA BERTAN BEHERA UZTEA

Idazkariak hitza hartu du eta adierazi laugarren ariketa hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko aurreikusita dagoela, baina ariketa guztiak gainditu dituzten hiru izangaiak egiaztatuta daukatela jada hirugarren hizkuntza eskakizuna, plaza betetzeko eskatzen dena, alegia. Ondorioz, ez du ikusten azterketa hori egiteko beharrik eta bertan behera uztea proposatu du.

Epaimahaikideak ados agertu dira eta ahobatez zera

ERABAKI DUTE

LEHENA: Oposizioaldiko 4. ariketa, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko dena, bertan behera uztea.

LAUGARREN PUNTUA: Oposizioaldia gainditu duten izangaien zerrenda

Ikusita 3. ariketa izangai guztiek gainditu dutela eta 4. ariketa aurrez gaindituta daukatela denek, erreklamazio epea zabaldu arren, epaimahaikideek beren aldetik, adostasun osoz, zera

ERABAKI DUTE

BAKARRA: Oposizio fasea gainditu duten izangaiak eta beraien emaitzak behin-behinean argitaratzea:



Erregistroko sarrera zenbakia	Nortasun Agiria	1. ariketa	2. ariketa	3. ariketa	4. ariketa	GUZTIRA
385	***0287**	14,00	31,66	10,40	Gaindituta	56,06
399	***3328**	24,50	38,66	13,95	Gaindituta	77,11
407	***5555**	12,75	37,33	14,38	Gaindituta	64,46

BOSTGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK.

Ez da inongo erregu edo galderarik aurkeztu.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, Lehendakariak bilkura amaitutzat eman du, goizeko 11:00 orduak direnean, eta nik, Idazkaria naizen honek, gertatutakoaren konstantzia gera dadin, akta hau luzatzen dut, bertan jasotakoa egiazko dela fede emanez.

Ormaiztegin, 2025eko otsailaren 7an.

Epaimahaiko lehendakariak

Epaimahaiko idazkariak

